

Azaroak 25

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna

BIOLENTZIA SEXISTAREN ERRO “NATURALAK”

Naturala al da emakumeen soldatak txikia-goak izatea? Naturala al da emakumeek egiten dituzten lanek gizonenak baino balio sozial eta ekonomiko murritzagoa izatea? Naturala al da gizonzkoak emakumeak baino sexualagoak izatea? Naturala al da emakume guztiek ama izateko desira izatea? Naturala al da emakumeek beren burua emozionaltzat hartzea eta gizonzkoek, arrazionaltzat? Naturala al da emakumeek etxeko langile gisa lan egitea eta gizonak, aldiz, garraiolarri izatea?... Zer da naturala?

Batzutan gauzak ez dira itxuraz ematen dutena. Gauzek gure barnean esanahi desberdinak jasotzen dituzte sinbolo eta sinesmen konpartitu eta naturalizatu batzuen arabera. Eta imajinario sozial horretan, gure subjektibilitatetik eta ez kanpotik esaten digutenetik, bai gizon zein emakumeek non egon eta zer egin behar dugun ikasten dugu gure desberdintasun biologikoan oinarrituta. Desberdintasun biologiko horixe da hain zuen ere desberdintasun soziala justifikatu egiten duena, naturala bilakatzen duena emakume eta gizonen arteko egiturazko desberdintasun egoera eta biolentzia sexistaren bidea leuntzen duena.

Hau ulertzen ez badugu, sakoneko erroei tira egiten ez badiagu gure jendartearren ADNa elikatzen duen “generoen ordena naturalari”, emakumeek-emakume izate

hutsagatik-pairatzen duten indarkeria era kroniko baten betikotzen jarraituko da bere adierazpen desberdinekin. Auren lau dira Euskal Herrian eraildako emakumeak kontaezinak diren izurri honen adierazpen ageriko zein ezkutukoez gain.

ELAtik, ikusten dugu lan mundua eskenatoki nabarmen bat dela, lanaren banaketa sexuala errotu eta naturalizatu egiten den esparrua, alegia. Hau ardatz gisa, gizonei zein emakumeei zuzenduriko lan desberdinak daude aitortza sozial eta ekonomiko desberdinarekin. Guzti hau ustezko naturalitatearen aterpe eta halabeharrezko patu bat izango balitz bezalaxe.

Bada, iritsi da azaroaren 25a, emakumeen aurkako bortizkeria salatzeko nazioarteko eguna. Urtero ez gara aspertzen patriarkatuak gure bizitzetan, batez ere emakumeen bizitzetan dauzkan ondorio lazgarrien salaketa egiteaz eta behin eta berriz errepikatzeaz.

Oraindik gauza asko dago erauzteko eta erroetatik ateratzeko baina generozko desberdintasun estrukturala eta biolentzia sexistarekin samaitzea nahi dugunok badugu zereginik. Gure bizitzek merezi dute.

25 de noviembre

Día contra la violencia hacia las mujeres

LAS RAÍCES “NATURALES” DE LA VIOLENCIA SEXISTA

Es natural que los salarios de las mujeres sean más bajos? ¿Es natural que los trabajos que realicen las mujeres valgan menos social y económicamente que los realizados por los hombres? ¿Es natural que los hombres sean más sexuales que las mujeres? ¿Es natural que todas las mujeres quieran ser madres? ¿Es natural que las mujeres se consideren emocionales y los hombres racionales? ¿Es natural que las mujeres trabajen como empleadas de hogar y los hombres como transportistas?... ¿Qué es lo natural?.

A veces las cosas no son lo que parecen ser. Las cosas adquieren significados distintos en base a un orden de símbolos y de creencias compartidas y naturalizadas dentro de nosotras y de nosotros. Y en ese imaginario social, desde nuestra subjetividad además de lo que nos dicen fuera, tanto hombres como mujeres aprendemos dónde tenemos que estar y qué se nos corresponde en base a nuestra diferencia biológica. Esa diferencia biológica es la que, precisamente, justifica la diferencia social; la que convierte en natural esa desigualdad estructural entre mujeres y hombres y la que abona el terreno a la violencia sexista.

Si no entendemos esto, si no tiramos de las raíces profundas que impregnan el ADN de nuestra sociedad en torno al “orden natural

de los “géneros”, la violencia ejercida contra las mujeres -por el mero hecho de ser mujeres- se seguirá perpetuando de manera crónica en sus distintas expresiones y manifestaciones. Este año son cuatro las mujeres asesinadas en Euskal Herria, además de las innumerables expresiones visibles e invisibles de esta lacra.

Desde ELA, también advertimos cómo el mundo laboral es un claro escenario en donde se enraíza y naturaliza la división sexual del trabajo. A partir de aquí, existen trabajos asignados a hombres y otros a mujeres, con diferente reconocimiento social y económico. Todo ello bajo esa capa de supuesta naturalidad e irremediable destino.

Así, llega este 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres. Día en el que no nos cansamos de repetir las nefastas consecuencias que el patriarcado tiene en nuestras vidas, sobre todo en la de las mujeres.

Aún queda mucho por arrancar y desentrañar desde las raíces, pero es una obligación para quien quiera erradicar la desigualdad estructural de género, y en consecuencia, la violencia sexista. Nuestras vidas lo merecen.

